

Hendaia-Hondarribia-Irun, mugaz gaineko partzuergoa sortu dute

Euskal Herriko botere publikoko mugaz gaineko lehen egitura osatu dute

Mugaz bi aldeko hiru herrien arteko Eurodistributua aspaldiko aipagaia bada ere, Hendaia, Hondarribia eta Irunek atzo izenpetu zuten partzuergoaren ituna, hiru herrien arteko harremanak kudeatuko dituen. Bidasoako uretan egin zuten ekitaldia, eta Baionako Itunaren lehen aplikapena da.

Hur Gorostiaga / Bidasoa

BAIONAN 1995 urteko martxoaren 10ean izenpetu zen Baionako Ituneari oinarriturik, Raphael Lassalette, Borja Jauregi eta Alberto Buen Hendaia, Hondarribia eta Irungo auzapezek hiru herrien arteko partzuergoa izenpetu zuten atzo goizean Bidasoako uretan, Hendaiaiko portu eta Hondarribiako Bentaren arteko gunean.

Azken urteotan Eurodistributari buruzko hainbat hitz egin badute ere, honakoa da hiru herrien arteko elkarlan ekonomiko eta soziala bidera dezaken lehenengo hitzarmena. Horretarako egitura berria sortu dute, partzuergoa. Baionako itunak bi aukera ematen zizkien, hiru herriak frantziar ala espainiar legedipeko egitura batean. Azken honek aukera gehiago ematen zuenez, partzuergoa osatzea erabaki dute, espainiar legeriko *consorcio* deritzona. Astearte arratsan udal bakoitzak bere kasa akordioa udal kontseiluan izenpetu ostean, atzo goizeko hamaitan hiruetako ordezkariak izenpetu zuten.

Partzuergoa, hiru udaletako ordezkariak osaturiko kontseilu orokorrak gidatuko du. Kutxa amankomuna ezarriko, biztanleen arabera partehartzea finkatu dute: %50 Irunen eskutik, %25 Hendaia eta %25 Hondarribiak. Egoitza nagusia Irunen finkatu dute.



Agintariak, atzo, akordioa sinatu zutenean.

BOB EDME

Atzoko ekitaldia, denak itsasontzi bakarrera igo ondoren, Alberto Buen Iruneko auzapezaren hitzaldiarekin abiatu zen. Ondotik Raphael Lassalette eta

Borja Jauregiren txanda izan zen. Hiruek, mugaz gaindi eskualdeko biztanleek urteetan elkarrekin bizitzeko izan duten joera azpimarratu, eta mugak

gaintuz harreman hori botere guneetara helarazteko xedea agertu zuten. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren izenean Jose Maria Muñozak eta Frantziako Estatuaren izenean Jean François Pajes Baionako suprefetak partehartu zuten ekitaldi ofizialean.

Gisa honetan, Euskal Herrian egun existitzen den botere publikoko mugaz gaineko lehen egitura sortu zuten. Partzuergoaren lehen ekimena, turisma saileko lankidetzara zuzenduko da. Ondotik, aldiz, kultur ekintzak garatzeko xedea dute, baita azpiegiturako lanak ere, besteak beste hondakin bilketaren antolaketarekin. Ildo beretik, hiru herrien arteko harreman ekonomikoak garatzea ere dute xedeko, euroaren heltzeak ezinbestekotzat joko duena.

Izaera bereziko egitura gisa, partzuergoak subentzio eta diru laguntzak jasotzen ahalko ditu. X

Erreferendum eskaera

PARTZUERGO eta hiru herrien arteko harremanen beharrezkin bat datoz udal indar kasik guztiak. Aitzitik, pausu hori eman aitzin, herria kontsultatu beharra azpimarratu izan dute, bereziki Hendaia aldean. Ildo horretatik, Robert Arranbide «Biharko Hendaia» talde abertzaleko kontseilariak eta Richard Beitia «Hendaia Denendako» zerrendako kontseilariak, erreferenduma galdegin dute. Gisa berean, Biriatu zein Urruñako udalei bertan sartzeko eskaintza ez egin izana ere salatu dute.

Hirugarren puntu gisa, gardentasuna aipu dute, Ipar zein Hegoaleko udal oposiziokoek. Izan ere Estatutuen arabera, udaleko gehiengoek hautatuko dituzte partzuergoaren kudeatzaileak, eta bertzeek ez dute inolako sartzetik izanen.

Mattin Sorzabalbere Irungo HBko kontseilariak «izaera itxi hori oso arriskutsua» dela esan du. Irungo udala bost partzuergo ezberdinen partaide da, eta bertan hartzen diren erabaki guztietatik at utziak direla salatu du. «Partzuergo berri honek sekulako dirutza jaso dezake Europatik, eta oposizioko taldeak diru horren kudeaketaz deus jakin gabe gera gaitzke» adierazi du.

EAEko gotzainek dei egin diote gizarteari bakearen eraikuntzan parte har dezan

Blazquez eta Asurmendik atzo kaleratu zuten Gabonetako euren mezua

Erredakzioa / Bilbo

EAE-KO gotzainek bakearen eraikuntzaren inguruan ardaztu dute aurtengo mezua. Setienek, Asurmendik eta Blazquez eta Etxenagusiak zeinek bere aldetik bakea eraikitzeke lana eta adiskidetzeko premia nabarmendu zuten.

«Egungo momentu historikoaren administrazioa» gizarte agintariari eta politikoei dagokiela iritzi arren, Bizkaiko gotzaiak dei egin diote gizarte osoari «hain gauza gizatiarra, erabakikorra

gizarte bizitarako eta hainbeste implikazio moral» duen helburuan lagun dezan. «Sendiak, hezkuntza instituzioak, komunikabideak, gizarte talde ezberdinak, juristak... deituak daude haien laguntza eman dezaten konbentzientzia demokratikoa guztiz normaliza dadin», diote Ricardo Blazquez eta Carmelo Etxenagusiak.

«Antzematen dugun eta benetan gura dugun bakezko geroaren aurrean, beharrezkoa da hurrengo hau ere: helburu politiko batzuk lortzeko, indarkeria

erabili, lagundu edo ontzat jotzen argi eta garbi alboratu dezatela indarkeria hori eta bizitzaren demokratikoan gogotsu sar daitezela», adierazi zuten Bizkaiko gotzainek atzoko idazki pastorealean.

Miguel Asurmendi Gasteizko gotzainak «bakea eta adiskidetzaren kultura» eskatu zuen bakera. «Biolentzia eta terrorismoen biktimak guztiekiko errespetua nahi dugu, eta baita preso guztien eskubideak gordetzea ere», nabarmendu zuen haren idazkian. Gure herriak bakerako



Ricardo Blazquez.

XOUSE SIMAL

lan handia egin duela iritzi arren, «benetako bakearen sekretua giza eskubideen errespetuan datzala» iritzi zion Gasteizko gotzainak. X

Ajuria Eneko Ituna sortu zenetik egungo egoerara bitarteko azterketa kaleratu du Orellak

■ 'De la Mesa de Ajuria Enea al Pacto de Lizarra' izeneko liburua plazaratu du

Aitziber Iartza / Donostia

JOSE LUIS ORELLA historia katedradunak Hego Euskal Herriko historia politikoa biltzen duen liburua kaleratu du Ttartalo argitaletxearekin. Liburua Ajuria Eneko Itunaren sinadurarekin abiatzen da eta Lizarrako Akordioaren sorrerarekin amaitzen da. «De la Mesa de Ajuria Enea al Pacto de Lizarra. Diccionario de términos políticos, válidos para encontrar la pacificación de Euskal Herria» liburua lehen zatian ibilbide hori egin du idazleak, eta bigarren zatian berriz, hainbat hitz biltzen ditu, horiei buruzko azterketa eginez. Autodeterminazio, askatasuna, Europa eta beste hainbat hitz ageri dira.

Hitzaurrea Jonan Fernandez Elkarki-kideak egin du, eta atzo prentsaurrean azaldu zuenez, liburua oso interesgarria da eta egungo egoera gaitzetzeko gakoak ere eskaintzen ditu.

Jose Luis Orellak, berriz, liburua ematen dituen ondorioen berri azaldu zuen. «Euskal Herriaren arazoa ez dago etorri eta 'aberriratu' ziren estremeño, galiziar eta Gaztelako jendearen gehiengoan, baizik eta espainiar kontzientziatu talde sozial txikian, zuzendaritza intelektual eta politikoa hartu baitute haien gain eta arrazoi dutela frogatzera etorri dira, eta bide batez eurek bultzatzen duten zatiketa sozialetik bizi dira». Bigarren ondorio da euskal gizartearen «arazo estruktural sakonak» daudela da. X

«Fronte nazionalistak zatiketa soziala» dakarrela dio Jauregik

Agentziak / Gasteiz

RAMON JAUREGI PSOEko Batzorde Eragileko kideak ETaren agiria eta HBk here-negun esandakoak izan zituen hizpide, eta kezkatu azaldu zen. Jauregiren ustez, ETaren su-etena Lizarrako Akordioak diotenaren lorpenagatik baldintzatua dago, eta hori kezagarria da, «euskal eta espainiar demokrazia eskaera politikoa horiek onartzea zaila baita».

Etorkizunari begira ezkor azaldu zen, Lizarraren ondorengo «fronte nazionalistak gizarte zatiketa areagotu egingo baitu». X